

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

ITSASARGIKO PASEALEKUKO BEGIRATOKIAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko urriaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko azaroan Udal Gobernuak adierazi zuen Itsasargiko Pasealekuko 44. zenbakian begiratoki bat eraikiko zuela eta diseinuaren argazki bat ere argitaratu zuen hainbat komunikabidetan. Zehazki, delegatuak adierazi zuen obrak 2016ko azaroaren 21etik aurrera hasiko zirela eta zonaldean 11.000 euroko inbertsioa egingo zela.

Ondoren, Elkartu Federazioak proiektuarekiko desadostasuna adierazi zuen, irisgarritasun baldintzak ez zirelako bermatzen (bankuak, begiratokiaren altuera eta abar).

2016ko batzordeetan delegatuari honen inguruan galdetu genion eta, alde batetik, erantzun zigun Elkarturen txostena kontuan izango zutela. Bestetik, delegatuak esan zuen proiektua aurrera ateratzeko arazoak zituztela lur-eremu pribatu bat zela medio.

Dagoeneko 10 hilabete pasatu direnez eta proiektu honen berri izan ez dugunez, urriko batzordeetan delegatua interpelatu genuen. Delegatuaren erantzuna izan da begiratokia kokatu nahi zuten partzela pribatua dela eta, ondorioz, ezin izan dutela obrarik egin.

Talde honek, askotan ikusten ditu horrelako egoerak, hau da, Udal Gobernuak proiektu baten salmenta komunikatiboa egiten du, baina gero, errealitatean, ez da proiekturik egiten.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari herritarrei eman diezaiela Donostian egin behar diren proiektu edo obren inguruko informazio erreala.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari proiektu edo obra bat egin behar duela ezagutarazi baino lehen egiazta dezala interbentzioaren eremua publikoa edo pribatua den, gerora sortu daitezkeen gestio arazoak ekiditeko.
3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari argitu dezala Itsasargiko Pasealekuan begiratoki bat egin behar duen ala ez.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

Donostian, 2017ko urriaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia